*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA**[1]

| | |
|---|---|
| Araua: | EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 294/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, 2008ko martxoaren 11koa, Berrikuntzaren eta Teknologiaren Europako Institutua sortzen duena. |

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

1 Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «REGLAMENTO (CE) Nº 294/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, por el que se crea el Instituto Europeo de Innovación y Tecnología» *(Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 97/7, 2008/4/9koa)*

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

I

*(Derrigorrez argitaratu beharreko EE/Euratom Tratatuak aplikatuta onartutako egintzak)*

ERREGELAMENDUAK

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 294/2008 (EE) ERREGELAMENDUA**

**2008ko martxoaren 11koa,**

**BerrikuntzaREN eta Teknologiaren Europako Institutua sortzen duena**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatua aztertu dute eta, bereziki, 157. artikuluko 3. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ([1]),

Eskualdeen Komitearen irizpena aztertu dute ([2]),

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ([3]),

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Hazkunderako eta enplegurako Lisboako agendak dio beharrezkoa dela Europan jakintzan eta berrikuntzan inbertsioa handitzeko baldintza erakargarriak sortzea, era horretan Europar Batasunean lehiakortasuna, hazkuntza eta lanpostuak sortzeko.

(2) Europar Batasunean oinarri industrial, lehiakor eta berritzailea finkatzeko arduradun nagusiak estatu kideak dira. Hala ere, Europar Batasuneko berrikuntzaren erronkaren izaera eta garrantzia kontuan hartuta, Erkidego mailako jarduerak ere eskatzen ditu.

(3) Erkidegoak laguntza eman behar du berrikuntza hori bultzatzeko, bereziki ikerketarako, garapen teknologikorako eta erakusketarako ekintzen zazpigarren esparru programaren, berrikuntza eta lehiakortasunerako esparru programaren, ikaskuntza etengabearen programaren eta egitura-funtsen bitartez.

(4) Erkidego mailan ekimen berri bat sortu behar da, Berrikuntzaren eta Teknologiaren Europako Institutua, aurrerantzean ingelesezko siglen bitartez adieraziko dena, «EIT», egungo politikak, erkidego mailako ekimenak eta herrialde mailakoak sustatzeko, era horretan jakintzaren hirukiaren integrazioa Europar Batasun osoan sustatzeko: goi mailako hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza.

(5) 2006ko ekainaren 15 eta 16ko Europako Kontseiluak Batzordeari eskatu zion EIT sortzeko proposamen formala egitea, 2006ko udazkenean aurkeztu beharko litzatekeena.

---

(1) C 161 EO, 2007.7.13koa, 28. or.

(2) C 146 EO, 2007.6.30ekoa, 27. or.

(3) Europako Parlamentuaren irizpena, 2007ko irailaren 26koa (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea). Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2008ko urtarrilaren 21ekoa (C 52 E EO, 2008.2.26koa, 7. or) eta Europako Parlamentuaren Jarrera Bateratua, 2008ko martxoaren 11koa (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

(6) EITren helburu nagusia Erkidegoaren eta estatu kideen berrikuntzarako gaitasuna garatzen laguntzea izan behar da, goi mailako hezkuntza, ikerketa eta goi mailako berrikuntzaren jarduerak barne. Era horretan, EITren bitartez, sareak eta lankidetza errazago sortu eta sustatuko dira, eta horri esker, Europako erkidegoen artean sinergiak sortuko dira.

(7) EITren jarduerek epe luzeko erronka estrategikoak jorratu behar dituzte, hau da, Europak berrikuntzaren esparruan dituen erronkak, bereziki diziplinaz gaindiko eta diziplina arteko esparruetan, Europa mailan identifikatutakoez gain. Era horretan, gizarte zibilarekin aldian behin elkarrizketa izatea sustatu behar du EITk.

(8) EITk lehentasuna eman behar die goi mailako hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza-jardueren eskualdaketari, enpresa-testuinguruari eta haren merkataritza-aplikazioari, baita sortzen ari diren enpresei, oinarri teknologikoa duten enpresei eta enpresa txiki eta ertainei (ETE) laguntza emateari ere.

(9) EITk erakunde autonomoen bitartez funtzionatu behar du batez ere, eta haren motor nagusia goi mailako hezkuntza-erakundeen, ikerketa-erakundeen, enpresen eta beste partaideen bikaintasuna izan behar da, era horretan berrikuntza-prozesu luzean estrategia-sare iraunkorrak eta buruaskiak lortzeko. Erakunde horiek EITren administrazio-kontseiluaren bitartez hautatu behar dira, prozedura gardena aplikatuz, betiere bikaintasunean oinarrituz, eta jakintza eta berrikuntzaren erkidego gisa (aurrerantzean «JBE») izendatuz. Administrazio kontseiluak EITren jarduerak zuzenduko ditu, eta JBEen jarduerak ebaluatuko. Administrazio-kontseilua osatzean, enpresa-munduan, goi-mailako hezkuntzan eta ikerketan pilatutako eskarmentuak orekatuko dira, baita berrikuntzaren esparruan eskuratutakoak ere.

(10) Europako ekonomiaren eta berrikuntza-gaitasunaren arteko nazioarteko erakargarritasuna nahiz lehiakortasuna sustatzeko, EIT eta JBEak mundu osoko erakunde, ikerlari eta ikasle bazkideak erakartzeko gai izan behar dira, haien mugikortasuna sustatuz, eta hirugarren herrialdeetako erakundeekin lankidetza sortuz.

(11) EIT eta JBEren arteko harremanak horien eskubide eta betebeharrak ezartzen dituzten kontratu-hitzarmenen araberakoak izan beharko dira, koordinazio-maila egokia bermatu beharko dute, eta garatzen dituzten jardueren jarraipen eta, ebaluazioa egiteko mekanismoa azaltzeaz gain, lortutako emaitzak ere azaldu behar dituzte.

(12) Beharrezkoa da, berrikuntzarako estrategia global baten barne, goi-mailako hezkuntza-elementu partaide gisa sustatzea, nahiz eta askotan urrun egon. EIT eta JBEen arteko hitzarmenak bermatu behar du erakunde horien bitartez emandako titulu eta diplomak goi mailako hezkuntza institutu partaideen bitartez emango direla, eta hitzarmen horretan erakunde horiei adorea eman behar zaie EITren titulu- eta diploma-izenak erabiltzeko. EITren jarduera eta funtzionamenduaren bitartez, Europako ikerketa eta goi-mailako hezkuntzaren esparruetan mugikortasuna sustatu behar da, eta aldi berean, ikertzaileei eta ikasleei JBEen esparruan emandako beken transferigarritasuna sustatu behar da. Jarduera horiek guztiak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/36/EE Zuentarauak, 2005eko irailaren 7koak, prestakuntza profesionalen aitorpenari buruzkoak ([2]), xedatutakoa eragotzi gabe egin behar dira.

(13) EITk jabetza intelektuala baldintza egokietan erabiltzeko kudeaketa-irizpide argi eta gardenak ezarri behar ditu. Irizpide horiek bermatu behar dute JBEen bazkide diren erakundeek egindako ekarpenak kontuan hartzen direla, erakunde horiek edozein tamaina dutelarik ere. Ikerketarako eta teknologia-garapenerako erkidegoko esparru-programen arabera finantzatutako jardueren kasuan, programa horien arauak ezarri behar dira.

(14) EITren ardura eta gardentasuna bermatzeko xedapen egokiak ezarri behar dira. EITren Estatutuetan haren funtzionamendua xedatzeko arau egokiak ezarri behar dira.

(15) EITk izaera juridikoa izan behar du, eta haren autonomia funtzional eta burujabetasuna bermatzeko, EITk bere aurrekontua kudeatuko du, bere diru-sarreren artean Erkidegoaren diru-ekarpen bat izango duelarik.

---

(1) C 255 EO, 2005.9.30ekoa, 22. or. Azken buruan Batzordearen 1430/2007 (EE) Araudiak aldatutako Zuzentaraua (L 320 EO, 2007.12.6koa, 3. or).

(16) EITk sektore pribatuan diru-ekarpenak sustatzen eta areagotzen lagundu behar du, baita jardueren ondorioz lortutako diru-sarreretatik eskuratutakoak ere. Horretarako, industriaren esparruak, finantza-sektoreak eta zerbitzuen sektoreak EITren aurrekontuan ekarpen garrantzitsuak egitea espero da, bereziki JBEen aurrekontuetan. JBEek eta beren erakunde bazkideek jendaurrean adierazi behar dute beren jarduerak EITren esparruan ekin dituztela, eta horretarako Europar Batasunaren aurrekontu orokorreko diru-ekarpen bat jasotzen dutela.

(17) EITean Erkidegoak egiten duen diru-ekarpenak EIT eta JBEen artean koordinazio eta administrazio-jarduerak ezarri eta egiteko sortutako kostuak finantzatu behar ditu. Finantzaketa hori bi aldiz ez jasotzeko, jarduera horiek ezin dute Erkidegoko beste programa bateko diru-ekarpenik jaso, esaterako ikerketa-ekintzetarako esparru-programatik, garapen teknologiko eta frogapenerako esparru-programatik, berrikuntza eta lehiakortasunerako esparru-programatik eta etengabeko ikaskuntzarako esparru-programatik edo egitura-funtsen eskutik. Bestalde, JBE batek edo haren elkarte bazkideetako batek programa horietan Europar Batasunak edo bere funtsek laguntza ematea eskatzen dutenean, eskaera horiei ez zaie beste eskaera batzuekiko lehentasuna eman behar.

(18) Erkidegoaren diru-ekarpenak eta Europar Batasunaren aurrekontu orokorraren barne dauden beste diru-laguntzak Europar Batasuneko aurrekontu-prozeduraren aplikazioaren araberakoak izango dira. Kontseiluaren 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduak, 2002ko ekainaren 25ekoak, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorretan aplikagarria den finantza-erregelamendua onartzen duenak, xedatutakoaren arabera ([1]), Kontuen Auzitegiak kontuak zergapetu behar ditu.

(19) Erregelamendu honek 2008 eta 2013 arteko eperako diru-kopurua ezartzen du, eta Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen arteko erakunde arteko hitzarmenean, 2006ko maiatzaren 17koan, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruzkoan ([2]), 37. atalaren araberako Aurrekontu Erakundearentzako erreferentzia nagusia hori izan behar da.

(20) 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduko 185. artikuluko 1. paragrafoaren arabera, Europar Batasunak sortutako erakunde bat da EIT, eta beraz, haren finantza-erregelamendua onartu behar du. Beraz, Batzordearen 2343/2002 (EE, Euratom) Erregelamendua, 2002ko azaroaren 19koa, Kontseiluaren 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduko ([3]) 185. artikuluan aipatutako organismoen esparruko finantza erregelamendua onartzen duena aplikatu behar zaio EITri.

(21) EITk urteko txostena aurkeztu behar du, non aurreko urte zibilean egindako jarduerak azaldu behar diren. Horrez gain, hiru urtez behin, abian jarritako ekimenak azaltzeko lan-programa bat egin behar du, era horretan EITk zientziaren, teknologiaren, goi-mailako hezkuntzaren, berrikuntzaren eta bestelako esparruen barne- eta kanpo-garapenari erantzuteko. Agiri horiek Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzordeari, Kontuen Auzitegiari, Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeen Komiteari bidali behar zaizkie, egindakoari buruzko informazioa emateko bakarrik. Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak beharrezko gaitasuna eduki behar dute EITren lehen hiru urteko proiektuari buruzko irizpena emateko.

(22) Berrikuntza Estrategikorako Agendan (aurrerantzean «BEA») epe luzerako esparru estrategikoak eta zazpi urteko epean EITk dituen finantza-premiak ezarri beharko dira. BEAk Erkidegoko berrikuntza-politikan eta haren eragin sozio-ekonomikoaren ondorioz duen garrantzia politikoa dela-eta, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak BEA onartu behar dute, EITren proiektuan oinarritutako Batzordearen proposamena oinarritzat hartuta.

(23) Bidezkoa da Batzordeak EITren funtzionamenduari buruzko kanpo-ebaluazioa egitea, bereziki BEA bat osatzeko. Beharrezkoa bada, Batzordeak proposamenak egingo ditu Erregelamendu hau aldatzeko.

---

(1) L 248 EO, 2002.9.16koa, 1. or. Azken buruan Batzordearen 1525/2007 (EE) Erregelamenduak aldatutako Zuzentaraua (L 343 EO, 2007.12.27koa, 9. or).
(2) C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/29/EE Erabakiak aldatutako Erakunde arteko Hitzarmena (L 6 EO, 2008.1.10ekoa, 7. or).
(3) L 357 EO, 2002.12.31koa, 72. or.

(24) Bidezkoa da EIT heinean-heinean eta pixkanaka ezartzen joatea, epe luzera garatu ahal izateko. Hasierako fasean, JBE-kopuru mugatu bat izango du, era horretan EITren eta JBEen funtzionamendua behar bezala ebaluatu eta, beharrezkoa bada, hobekuntzak egiteko. EITa ezarri eta 18 hilabeteko epean, Europar Batasunari egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiten laguntzen dioten esparruetako bi edo hiru JBE aukeratu behar ditu administrazio-kontseiluak; besteak beste, klima-aldaketari, energia berriztagarriei eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruzkoak izan daitezke JBE horiek. Lehen BEA onartu ondoren, beste JBEak hautatu eta izendatu behar dira, epe luzerako perspektibari aurre egiteko. Horren barne, EITren funtzionamenduari buruzko modalitate xehatuak aipatu behar dira.

(25) Ekintzaren helburuak estatu kideek bakarrik lortu ezin dituztenez, eta ondorioz, ekintzaren hedadura eta nazioz gaindiko izaera kontuan hartuta, helburu horiek askoz ere errazago lor daitezke Erkidego mailan. Hori dela-eta, Erkidegoak Tratatuaren 5. artikuluan aipatutako subsidiariotasun-printzipioen araberako neurriak hartu ahal izango ditu. Artikulu horretan azaldutako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erregelamendu hau ez doa helburu horiek lortzeko beharrezkoa denaz harago.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

*1. artikulua*

**Helburua**

Erregelamendu honen bidez Berrikuntzarako eta Teknologiarako Europako Institutua sortzen da (aurrerantzean «EIT»).

*2. artikulua*

**Definizioak**

Erregelamendu honi dagokionez, honako definizio hauek aplikatuko dira:

1) «berrikuntza» kontzeptua prozesu bat eta haren emaitzak dira, hain zuzen ere eskaera sozial edo ekonomiko bati erantzuteko ideiak sortu eta enpresa- nahiz antolaketa-produktu, -zerbitzu eta -eredu berriak sortzen dituztenak. Elementu horiek merkatuan sartzen dira, edo merkatu berri bat sortzeko gai dira;

2) «jakintza eta berrikuntzaren erkidego (JBE)» kontzeptua goi-mailako hezkuntza-erakunde autonomoek, ikerketa-erakundeek, enpresek eta bestelako partaideek sortutako elkartea da; berrikuntzarako plangintza bateratuan oinarritutako estrategia-sarea osatzen du, epe ertain edo luzera, EITk ezarritako erronkak betetzeko, beren forma juridikoa edozein izanda ere;

3) «Estatu partaidea» izango da Europar Batasuneko estatu kide bat edo EITren inguruan Europar Batasunarekin hitzarmena egin duen beste herrialde bat;

4) «hirugarren herrialdea» izango da estatu partaidea ez den beste edozein estatu;

5) «gizarte-erakundea» izango da JBE bateko kide den edozein erakunde, bereziki: goi-mailako hezkuntza-erakundeak, ikerketa-erakundeak, enpresa publiko edo pribatuak, finantza-erakundeak, eskualdeko eta tokiko agintariak eta fundazioak;

6) «ikerketa-erakundea» izango da entitate juridiko publiko edo pribatua, baldin eta bere helburu nagusietako bat ikerketa edo teknologia-garapena bada;

7) «goi-mailako hezkuntza-erakundea» izango da unibertsitate bat edo goi-mailako hezkuntza-erakunde bat, herrialde bakoitzeko legediaren edo jardunbidearen arabera, maisutza edo doktoretza mailako titulu eta diplomak ematen dituena, titulu horiek testuinguru nazionalean duten izena kontuan hartu gabe;

8) «titulu eta diplomak» izango dira master edo doktoretza bat eskuratzeko balio duten prestakuntzak, goi-mailako hezkuntza-erakunde partaideek JBE baten barne egindako goi-mailako hezkuntza-jardueren testuinguruan emandakoak;

9) «Berrikuntza Estrategikorako Agenda (BEA)» izango da orientabide gisa erabiliko den dokumentua, non JEB bateko etorkizuneko ekimenetarako lehentasunezko esparruak azaltzen diren, eta goi-mailako hezkuntza-jardueren, ikerketa nahiz berrikuntza-jardueren sinopsia ere egiten den zazpi urteko eperako.

*3. artikulua*

**Helburua**

EITren helburua Europan hazkunde ekonomiko iraunkorra sortzen laguntzea izango da, baita industria-leihakortasuna indartzea ere, estatu kideen eta Erkidegoaren berrikuntza-gaitasuna indartuz. Helburu hori lortzeko, goi-mailako hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatu eta integratuko ditu.

*4. artikulua*

**EITren organoak**

1. Hauek izango dira EITren organoak:

a) administrazio-kontseilua, goi-mailako kideek osatutakoa. Kide horiek goi-mailako hezkuntzan, ikerketan, berrikuntzan eta enpresan eskarmentu handia izango dute, eta EITren jarduerak zuzentzeko ardura edukitzeaz gain, JBEak hautatu, izendatu eta ebaluatu behar dituzte, baita edozein erabaki estrategiko hartu ere;

b) batzorde exekutiboa. EITren funtzionamendua egiaztatzeaz gain, administrazio-kontseiluaren bilera baten eta hurrengoaren artean, beharrezko erabakiak hartuko ditu;

c) zuzendariak, EITren kudeaketa administratiboaren eta finantzarioaren ardura izango du administrazio-kontseiluaren aurrean, eta haren ordezkari legala izango da;

d) barne-auditoria funtzio bat, administrazio-kontseiluari eta zuzendariari kudeaketa finantzarioari eta administratiboari buruz aholkularitza emateko, baita EITren kontrol-egiturei buruzkoa ere, hain zuzen ere JBEekin dituzten finantza-loturen antolakuntzari buruz edo administrazio-kontseiluak eskatutako beste edozein gairi buruz.

2. Batzordeak behatzaileak izendatu ahal izango ditu, administrazio-kontseiluaren bileretan parte hartzeko.

3. EITren organoei buruzko xedapen zehatzak, EITren estatutuetan azaltzen dira, Erregelamendu honi atxikita.

*5. artikulua*

**Betebeharrak**

1. EITk, bere helburuak lortzeko:

a) lehentasunezko jarduera-esparruak zehaztuko ditu;

b) gizarte-erakunde izan daitezkeenen artean kontzientziazio-lanak egingo ditu, eta bere jardueretan parte-hartzea sustatuko du;

c) 7. artikuluak xedatutakoaren arabera, lehentasuna duten JEBak hautatu eta izendatuko ditu, eta hitzarmenen bitartez, haien eskubide eta betebeharrak zehaztuko; laguntza egokia emango die; kalitate-kontrolerako neurri egokiak ezarriko

ditu; jardueren etengabeko jarraipena egingo du, aldian behin ebaluatuz, eta horien arteko koordinazio egokia bermatuko du;

d) iturri publiko eta pribatuetatik funtsak mobilizatuko ditu, eta Erregelamendu honek xedatutakoaren arabera erabiliko ditu baliabide horiek. Bereziki, aurrekontuaren zati handi bat, gero eta gehiago, iturri pribatuetatik iristea lortzen saiatu behar da, baita beren jardueren ondorioz sortutako diru-sarreretatik ere;

e) Estatu kideek JBEetako kide diren goi-mailako hezkuntza-erakundeek emandako titulazio eta diplomak aitortzea sustatuko du, baita EITren titulazio eta diplomen izenak erabiltzea ere.

f) jakintzaren hirukia integratzeko jardunbide egokiak zabaltzen lagunduko du, era horretan berrikuntzaren eta jakintzen transmisioaren esparruan kultura komuna garatzeko;

g) goi-mailako hezkuntzan, ikerketan eta berrikuntzan duen bikaintasunagatik mundu mailan lehen mailako erakunde bihurtzen saiatuko da;

h) EITren jardueren eta Erkidegoko beste programa batzuen arteko osagarritasuna eta sinergia bermatuko ditu.

2. EITk gaitasuna izango du fundazio bat sortzeko (aurrerantzean «EITren fundazioa») EITren jarduerak sustatu eta laguntzeko asmo zehatzarekin.

*6. artikulua*

**JBE**

1. JBEek, zehazki, jarduera hauei ekingo diete:

a) Europan balio erantsia duten berrikuntza eta inbertsio-jarduerak, goi-mailako hezkuntzaren eta ikerketaren dimentsioa erabat integratzen dutenak, era horretan masa kritikoa lortu eta emaitzen zabalpena eta ustiapena sustatzeko;

b) puntako ikerketa, funtsezko interes ekonomiko eta sozialeko esparruetan berrikuntza sortzera zuzendua; Europako eta herrialde-mailako ikerketaren emaitzetan oinarritutakoa, nazioarteko eskalan Europaren lehiakortasuna indartzeko ahalmena duena;

c) maisutza eta doktoretza-mailako hezkuntza eta prestakuntza-jarduerak, Europaren etorkizuneko premia ekonomikoak bete eta berrikuntzarekin, eta enpresa- nahiz kudeaketa-gaitasunen hobekuntzarekin zerikusia duten gaitasunak sorrarazteko; baita ikertzaile eta ikasleen mugikortasuna sustatzeko ere;

d) Berrikuntzaren sektorean jardunbide egokiak zabaltzea, goi-mailako hezkuntzaren, ikerketaren eta enpresen artean lankidetza-harremanak ezartzeko, finantza eta zerbitzuen sektoreak barne.

2. JBEek autonomia izango dute oro har barne-antolaketa eta osaketa zehazteko, baita bileretako gaien zerrendak eta lan-metodo zehatzak zehazteko ere. Bereziki, JBEak kide berriak onartzeko prest egongo dira, baldin eta elkarteari balio erantsia ematen badiote.

3. EITren eta JBE bakoitzaren arteko harremana kontratu-hitzarmen baten bidez zehaztuko da.

*7. artikulua*

**JBEak hautatzea**

1. EITk elkarte bat hautatu eta izendatuko du, prozedura lehiakor, ireki eta garden baten bitartez, hura JBE bihur dadin. EITk JBEak hautatzeko irizpide xehatuak onartu eta argitaratuko ditu, bikaintasunaren eta berrikuntzarako garrantziaren printzipioetan oinarrituta. Hautapen-prozesu horretan, kanpo eta barne-aditu burujabeek parte hartuko dute.

2. 1. paragrafoan xedatutako printzipioen arabera, JBEak hautatzeko orduan, hau hartu beharko da kontuan:

a) elkarteak duen egungo berrikuntza-gaitasuna eta berrikuntza-potentziala, baita goi-mailako hezkuntzan, ikerketan eta berrikuntzan duen bikaintasuna ere;

b) BEAren helburuak lortzeko duen gaitasuna;

c) elkarteak epe luzera finantzaketa iraunkor eta autosufizientea bermatzeko duen gaitasuna, sektore pribatuaren, industriaren eta zerbitzuen diru-ekarpen nabarmen eta gero eta handiagoak barne;

d) goi-mailako hezkuntzaren, ikerketaren eta berrikuntzaren arteko jakintza-hirukian erakunde aktiboak biltzen parte hartzea;

e) jabetza intelektuala kudeatzeko plan egoki bat erakustea, hain zuzen ere dagokion sektorerako egokia dena eta EITk jabetza intelektualari buruz dituen oinarri eta irizpideekin bateragarria dena, hainbat erakunde bazkidetatik egindako ekarpenak kontuan hartzeko modua barne;

f) sektore pribatuan partaidetza sustatzeko eta sektore pribatuarekin lankidetza sustatzeko neurriak, finantza-sektorea barne; eta bereziki ETEak sustatzeko neurriak, baita enpresa hasiberriak eta enpresa eratorriak eta ETEak sortzea ere, JBEen jardueren emaitzak modu komertzialean ustiatzeko;

g) JBEetatik kanpo beste erakunde eta sareekin batera lan egiteko prestakuntza, era horretan jardunbide onak eta bikaintasuna partekatzeko.

3. JBE bat sortzeko gutxieneko baldintza da gutxienez bi estatu kide ezberdinetan kokatutako hiru erakunde bazkidek bertan parte hartzea. Erakunde bazkide horiek guztiak elkarren artean burujabeak izan behar dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1906/2006 (EE) Erregelamenduak, 2006ko abenduaren 18koak, enpresek, ikerketa-zentroek eta unibertsitateek zazpigarren esparru programaren jardueretan parte hartzeko arauak eta ikerketen emaitzak hedatzeko arauak ezartzen dituenak (2007-2013) ([1]), 6. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

4. JBE batean hirugarren herrialdeetan kokatutako erakunde bazkideek parte hartu ahal izango dute, administrazio-kontseiluak aldez aurretik horretarako baimena ematen badu. JBEak osatzen dituzten erakunde bazkide gehienak estatu kideetan kokatuta egongo dira. JBEen barne egongo dira, gutxienez, goi-mailako hezkuntza-erakunde bat eta enpresa pribatu bat.

*8. artikulua*

**Tituluak eta diplomak**

1. Goi-mailako hezkuntza-jardueren titulu eta diplomak, hain zuzen ere 6. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutakoak, goi-mailako hezkuntza-erakunde partaideek emango dituzte, betiere herrialde mailako akreditazio-arau eta -prozedurei jarraiki. EITren eta JBEen arteko hitzarmenak xedatu beharko du titulu eta diploma horiek EITk emandako izendapena ere eduki dezaketela.

2. EITk hau egitera bultzatuko ditu goi-mailako hezkuntza-erakunde parte-hartzaileak:

a) baterako titulu edo diplomak edo askotariko titulu edo diplomak ematea, JBEen izaera integratua islatzeko. Hala ere, titulu edo diploma horiek goi-mailako hezkuntza-erakunde bakar batek ere eman ahal izango ditu;

b) kontuan har dezatela:

(1) L 391 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or.

i) Tratatuaren 149 eta 150. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Erkidego mailan abian jarritako jarduerak,

ii) Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Gunearen testuinguruan abian jarritako jarduerak.

*9. artikulua*

**EITrekiko mendekotasunik eza eta koherentzia Erkidegoko, herrialdeko eta gobernu arteko jarduerekiko**

1. EITk herrialde mailako erakundeak eta kanpoko presioak kontuan hartu gabe egingo du lan.

2. EITren jarduerak koherenteak izango dira Erkidego mailan aplikatzen diren beste jarduera eta tresnekin, bereziki goi-mailako hezkuntzaren, ikerketaren eta berrikuntzaren esparruan abian jarritakoekin.

3. EITk oso kontuan hartu beharko ditu eskualdeko, herrialdeko eta gobernu arteko mailan abian jarritako politika eta ekimenak, era horretan jardunbide egokiak, ongi aplikatutako kontzeptuak eta eskuragarri dauden baliabideak aplikatzeko.

*10. artikulua*

**Jabetza intelektuala kudeatzea**

1. EITk jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzeko irizpideak onartuko ditu, eta irizpide horiek, besteak beste, 1906/2006 (EE) Erregelamendua izango dute oinarri.

2. Irizpide horien oinarriari dagokionez, JBE bakoitzeko erakunde bazkide guztiek elkarren arteko hitzarmenak egingo dituzte jabetza intelektuala kudeatu eta erabiltzeko. Hitzarmen horietan bereziki zehaztu beharko da erakunde bazkideek, ETEek barne, egindako ekarpenak nola kontuan hartu behar diren.

*11. artikulua*

**Estatutu juridikoa**

1. Erkidego mailako organismoa izango da EIT, eta berezko lege-nortasuna izango du. Estatu kide bakoitzean barne Zuzenbideak pertsona juridikoei ematen dien gaitasun juridiko handiena izango du. Bereziki, ondasun higigarri edo higiezinak erosi eta saldu ahal izango ditu, eta epaiketa batean agertu ahal izango da.

2. Europako Erkidegoen pribilegio eta immunitateei buruzko protokoloa EITri ere aplikatuko zaio.

*12. artikulua*

**Erantzukizuna**

1. EIT izango da bere betebeharrak betetzeko erantzule bakarra.

2. EITren kontratuzko erantzukizuna dagozkion kontratuzko xedapenek arautuko dute, baita kontratu horretan aplikagarria den Zuzenbideak ere. EITk egindako kontratuetan ageri den arbitraje-klausula batek xedatutakoaren arabera, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegia izango da auzitegi eskuduna.

3. Kontratuzkoa ez den erantzukizuna bada, EIT erakundeak berak edo bertako langileek jardunean ari ziren bitartean sortutako kalteak konponduko ditu, estatu kideen legedien oinarri orokor komunei jarraiki. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak izango du aginpidea kalte horien kalte-ordainekin zerikusia duten auzietan.

4. EITk 2. eta 3. paragrafoetan xedatutako erantzukizuna bere gain hartzeko egindako edozein ordainketa, baita ordainketa horiei lotutako kostu eta gastuak ere, EITren gastutzat joko dira, eta beraz, erakundearen baliabideekin ordainduko dira.

5. Tratatuaren 230 eta 232. artikuluetan aipatutako baldintzetan EITren aurka jarritako errekurtsoen kasuan, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak izango du aginpidea.

*13. artikulua*

**Gardentasuna eta dokumentuetarako sarbidea**

1. EITk bermatu beharko du jarduerak gardentasun-maila handiarekin egiten dituela. Bereziki, sarbide libreko webgune bat sortuko du, bertan EITren eta JBEen jardueren berri emateko.

2. EITk barne-araudia, 21. artikuluko 1. paragrafoan xedatutako berariazko finantza-erregelamendua eta JBEak hautatzeko irizpideak, 7. artikuluan aipatutakoak, argitaratuko ditu lehen JBE hautatzeko proposamenak aurkezteko lehen deialdia egin baino lehen.

3. EITk hiru urteko lan-programa berriztagarria argitaratuko du atzerapenik gabe, baita 15. artikuluan aipatutako urteko jarduera-txostena ere.

4. 5. eta 6. paragrafoetan xedatutakoa eragotzi gabe, EITk informazio jakin bat jaso badu, eta informazio horrek trataera konfidentziala edukitzea eskatu bada, eta hori justifikatuta badago, EITk ezingo die hirugarren alderdiei informazio hori eman.

5. EITko organoetako kideek Tratatuaren 287. artikuluan xedatutako konfidentzialtasun-betebeharra, ‘64e delakoa, bete beharko dute. Erregelamendu honen arabera EITk bildutako informazioa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 45/2001 (EE) Erregelamenduak, 2000ko abenduaren 18koak, instituzioek eta Erkidego mailako erakundeek datu pertsonalak tratatzerakoan pertsona fisikoak babesteari buruzkoak, eta datu horien joan-etorri askeari buruzkoak ([1]), arautuko du.

6. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1049/2001 (EE) Erregelamendua, 2001eko maiatzaren 30ekoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen dokumentuetarako sarbide publikoari buruzkoa ([2]), EITren esku dauden dokumentuetan aplikatuko da. Administrazio-kontseiluak Erregelamendu hau aplikatzeko xedapen praktikoak onartuko ditu, EIT sortu eta sei hilabeteko epean, gehienez.

7. EITren dokumentu eta argitalpen ofizial guztiak 1958ko apirilaren 15eko 1. Arauak, Europako Erkidego Ekonomikoaren hizkuntza-erregimena ezartzen duenak ([3]), xedatutakoaren arabera itzuliko dira. Europar Batasuneko Organoen Itzulpengintza Zentroak, Kontseiluaren 2965/1994 (EE) Erregelamenduaren arabera sortutakoak ([4]), emango ditu beharrezko itzulpen-zerbitzuak.

*14. artikulua*

**Finantza-baliabideak**

1. Europar Batasuneko aurrekontu orokorretik egindako ekarpenaren bitartez finantzatuko da EIT, 19. artikuluan xedatutako finantza-zuzkiduraren nahiz beste iturri publiko eta pribatu baten barne.

